



EBBren Prentsa Bulegoa
EUZKADIko
PRENTSA IDAZKOLA



Villa Arnaga
Kanbo
2018-05-04

Villa Arnaga
Cambo
04-05-2018

Euzkadi Buru Batzarraren presidente den Andoni Ortuzarren adierazpena

Euskal gizarteak hirurogeita hamar urtetan bizi izan duen amesgaiztoa gaur amaituko da. Sinesgarritasuna ematen diogu atzo entzun genuen eta gaur nazioarteko ordezkariak berretsi duten iragarpenari. Azkenean, ETA gure bizitzatik desagertuko da. Azken hamarkada hauetan espero eta nahi genuen albistea da. Eta, une honetan, gure lehenengo oroitzapena da indarkeriaren zentzugabekeria zuzenean pairatu duten biktimentzat. Gaurko egunera iritsi gaitezen, beren ahalegina eta esfortzua egin duten horientzat guztientzat ere bai, egun hau askoz lehenago iristea nahiko genukeen arren.

EAJ ETAREN helburu eta metodoen aurka egon da hasiera-hasieratik. Sorburuan ez zuen zentzurik izan eta are gutxiago bere jardun zorigaiztoko eta justifika ezinak. Euskal gizartearen gehiengo nagusi baten sentipen berbera da. Hain zuzen ere, gaurko egun honetan gure gizarte osoa zoriondu nahi dugu ETARI eta bere erasoei aurre egiten jakin nahi izan duelako, bere asmo totalitarioak aurrera egitea eragotzi duelako. ETARIK gabe, euskal gizarte hegaletan eraman izan duen berunetik libratu da, eta askatasun osoz hegan egin ahal izango du izan nahi duena izateko. Etorbizun oparoa iragartzen dugu gure Herriarentzat. Baina gure iragan tristeaz jabetzen gara eta beti izango dugu ETARI "ezertarako balio izan du?" galdera egiteko gogoan.

Declaración de Andoni Ortuzar, presidente del Euzkadi Buru Batzar

La pesadilla que durante sesenta años ha vivido la sociedad vasca termina hoy. Damos credibilidad al anuncio que escuchamos ayer y que hoy ha sido ratificado por representantes internacionales. Por fin ETA desaparece de nuestra vida. Es una noticia que esperábamos y deseábamos desde hace décadas. Nuestro primer recuerdo es para las víctimas directas que han sufrido la sinrazón de la violencia. También para quienes han luchado y trabajado para que llegáramos al día de hoy, un día que nos hubiera gustado llegara mucho, mucho antes.

EAJ-PNV ha discrepado radicalmente de los fines y los métodos de ETA desde su nacimiento. No tuvo sentido su origen y menos sus tristes e injustificables acciones. Es el sentimiento también de la inmensa mayoría del pueblo vasco. Precisamente, en el día de hoy, queremos felicitar al conjunto de nuestra sociedad por haber sido capaz de resistir a ETA y a sus ataques e impedir que prosperara su proyecto totalitario. Sin ETA, la sociedad vasca se sacude el plomo de las alas y podrá volar en libertad para ser lo que quiera ser. Auguramos un futuro positivo para nuestro País. Pero somos conscientes de nuestro triste pasado y siempre nos quedarán las ganas de reclamarle a ETA que conteste a la pregunta: ¿Para qué ha servido?.